



Urriaren 18an Bilboko Arriaga Antzokian estreinatu zen *Soinujolearen semea*, Bernardo Atxagaren nobelan oinarrituako antzeslana. Gasteizko Antzoki Zaharrean eskaini da gerotzik, eta azaroaren 3an eta 4an, Donostiako Victoria Eugenia Antzokira helduko da.



Geure memoria hurbila

BI LAGUN, adiskidetasuna, traizioa eta iraganaren pisu astuna. Hitz horiekin laburbildu daiteke *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2002), Bernardo Atxagak idatzitako eleberriarren istorioa. Baina hori baino gehiago ere badela esan daiteke, bai eleberriaz, baita antzerkirako egokitzapenaz ere, geure memoria hurbila deskribatzen baita Daviden eta Josebaren arteko harremana oinarritzat duen narrazio honetan, Euskal Herriko XX. mendeko historia, 36ko Gerra zibiletik hasi eta gaur egun artekoa.

Tanttaka Teatroak EAEko hiriburuetakoko hiru antzoki nagusiak biltzea lortu du ekoizpen handi honetan, eta antzerkirako sasoi onenak ez diren arren, ekinaren ekinenez asmo handiko antzezpena aurkeztu digu lanean jada aspalditik ari den antzerki talde honek.

Bernardo Atxagak berak oinarritzat jo du antzerkirako egokitzapena. “Antzespina Arriagan aurkeztea oinarri-oinarritzko zerbait da euskal antzerkirako. Literaturak zerbait adierazteko duen ahalmena, besteei zerbait esateko eginkizun horretan, antzerkia oinarritzkoa

Soinujolearen semea. Egilea: Bernardo Atxaga. **Antzerkirako egokitzapena:** Patxo Telleria. **Zuzendaria:** Fernando Bernues. **Musika:** Iñaki Salvador. **Eszenografia:** Jose Ibarrola. **Argiztapena:** Xabier Lozano. **Jantziak:** Ana Turrillas. **Aktoreak:** Aitor Beltran, Joseba Apaolaza, Vito Rogado, Anke Moll, Iñaki Rikarte, Patxo Telleria, Mikel Losada, Asier Hernandez, Amancay Gaztañaga, David Pinilla, Mireia Gabilondo. **Ekoizpena:** Tanttaka Teatroa, Bilboko Arriaga Antzokia, Gasteizeko Antzoki Zaharra eta Donostiko Victoria Eugenia Antzokia.

baita Greziako garaietatik, eta hortik aurrera dena da haren zorduna, egun idazten denak badu antzerki horren kutsurik, formetan edota elkarrizketan. Beraz, *Soinujolearen Semea* antzerkira eramate hori nolabait iraganera egindako bidaia da”. Idazleak duela 35 urte egindako antzerki lanak ekarri zituen gogora.

Atxagaren ustez edozein eleberriz izan daiteke antzerkia, eta antzerkia izan daiteke eleberria. “Literatuta ametsa da, bakoitzaren irudia, antzerkian aldiz, pertsonaia gorpuzten da, abantaila desberdinak dituzte literaturak eta antzerkiak”.

Patxo Telleriak zehaztu zizkion hitzak: “Nobela guztiak antzerkiarako materiala izan daitezke, baina batzuk besteak baino errezagoak

dira. Liburu honen egokitzapenari dagokionez, hitzetan denboretan eta gertaeretan daukan dimentsioagatik, zailtasun handia izan du. Hala ere narrazioak badu hezurdura bat, eta hezurdura hori behar beharrezkoa genuen horren gainean josteko”. Hala ere, pertsonaia eta egoera ugari bazter utzi behar izan zituzten, “lokomotora bizikleta bihurtu genuen”, urratu beharreko bidea bera izanagatik ere.

Soinua, musika-instrumentua alegia, oso presente dago antzezlan honetan. Alde batetik, Iñaki Salvadorrek zuzenean jotzen duelako. Bestetik, zenbait tresna eszenatikian kokatuta ikusiko ditugulako. ■

